

Lan-deialdia:

## Hezkuntza teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

### ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua **BILBON**, baina lan-eremua Euskadi osoa izango da.
- Lanaldi osoko lan-kontratua.
- Urtean 28.862,85€-ko (soldata gordina).
- EGKren barne hitzarmenak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.
- Lantalde gazte eta dinamiko batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren parte-hartzearen alde lan egitea.

### LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan-arloari dagozkion **proiektuak** eta **ekimenak** diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatu.
- Erakundearen lan-arlo guztiekin **ekintzak** koordinatu.
- **Lantaldeak** koordinatzea hezkuntza ez-formalaren esparruan.
- Hezkuntza formaleko eragilez osatutako **Hezkuntza Foroa lantaldea** koordinatu.
- **Hezkuntza formala** eta **astialdiaren** arloko **errealitatea** ezagutu eta jarraipena egin.
- Beharrezkoa denean, lan-arloari dagozkion gaien inguruan **posizionamendu/balorazio publikoak** egin.
- **Bitartekaritza** eta **elkarlana** burutu **Erakunde Publikoekin**. (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, Lanbide...)
- **Gizarte eragileekin** elkarlana bultzatu eta garatu.
- **Elkartek** eta **gizarte mugimenduek** garatzen dituzten **proiektuak/ekimenak** ezagutu eta parte hartu.

### ESKATZEN DA:

- **30 urte** baino gutxiago izatea.
- Euskal **elkartegintza**ren eta **gizarte mugimenduaren** errealitatearen **ezagutza** izatea, eta bereziki, hezkuntza formala eta aisialdi hezitzaile arloan diharduten gizarte eragileena.
- Gazteen eta orokorrean gizartearen errealitatearen **ezagutza** izatea, eta batez ere **aisialdia** eta **hezkuntza** arloko **arazo** eta **aukeren** inguruan.
- **Euskaraz** eta **gazteleraz** hitz egiteko eta idazteko **maila altua** (EGA, HABE 3...).

- Gizarte arloko **goi ikasketak** izatea, edo, beste esparruetako ikasketak izanda ere, gizarte gaietan espezializatu izana (bereziki hezkuntzarekin lotutako ikasketa gehigarriak izatea).
- Lantaldeak eta eztabaida-taldeak **dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna** eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- **Malgutasuna**: ordutegi eta mugikortasun geografikoa.

#### BALORATUKO DA:

- Astialdiko elkarteren batean ibilbide egiaztatua edukitzea.
- Lantaldean aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta ardurak hartzeko gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak autonomiaz garatzeko gaitasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatika eta datu ustiaketarako programa estatistikoen ezaguerak.
- Elkarre ezberdinetan parte-hartze aktiboa (ikasle mugimenduan, begirale munduan...).

#### CURRICULUM ETA MOTIBAZIO GUTUNA:

- Epea: **azaroak 14 goizeko 12:00ak arte**.
- Sartu eta bete [Datu babesaren politika](#) (derrigorrezkoa).
- **egk@egk.eus** helbidera bidali / Gaian “**Hezkuntza teknikaria**” idatzi.
- Curriculum dokumentua honela izendatu: **IzenAbizenak.CV\_HEZKUNTZA.pdf/doc**.
- Motibazio Gutuna honela izendatu: **IzenAbizenak.GUTUNA\_HEZKUNTZA.pdf/doc**.

#### AUKERAKETA PROZESUA

Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

- Curriculum eta motibazio gutunaren bidalketa, **azaroaren 14ra arte** (eguerdiko 12.00ak arte).
- Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, **azaroaren 16an**.
- Froga Idatzia Bilbon, **azaroaren 17an**.
- Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, **azaroaren 21ean**.
- Elkarrizketa eguna, **azaroaren 23an Bilbon**.
- Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, **azaroaren 25ean**.
- Lanean hasteko data, **azaroaren 28an**.